

# SANTOS SUINAGA

Casto Suinagaren anaia, haren bidea jarraituz sartu zen pelota mundura, zesta puntan probatu, eta laister iritsiz anaiaren fama izatera. Pertsona moduan, zintzoa eta serioa zela esaten digute, publikoa pozik mantentzen zekiela, eta txalo ugari jasotzen zituela jokaldi. Anaiak bezala, publikoari errespetu handia omen zion, baina alderantziz ere ala omen zen, izan ere, ondo ez bazegoen, gaizki jokatu baino, nahiago izaten baitzuen ez jokatu, berak dirua galduta ere, publikoari ez huts egitearren. Horregatik, jarraitzaile ugari zituen, eta apostuak alde izaten zituen.

Bere jokatzeko posizioa atzelari bezala omen zen. Bere estiloari dagokionez, pelota mozteko modu azkarra, errebesak, eta erreboteak goraipatzen dizkigute garaiko kronikek (Joshemari, *El Pelotari*, 110.Zenb, 2.orr). Bere garaian kantxetan ibilitako jokalaririk osoenetako bat bezala definitzen dute, oso joku entretenitua zuena, eta azkeneraino borrokatzen zuena, eta pelotarengan erabateko kontrola zuena.

Bere karrera profesionalari dagokionez, Deustun hasi, eta laister egin omen zuen salto Madrilgo El Trinquete de San Franciscora, urte gutxieren buruan Espainia eta Ameriketako pelotaleku garrantzitsuenak ezagutuz, eta denetan arrakasta izanez. Bere pelotari egunak Madrilgo El Frontón Centralen amaitu omen zituen, arrakasta handiz, lehenengo figura izanez bertan.

---

Hermano de Santos Suinaga, entró al mundo de la pelota vasca siguiendo sus pasos, centrándose en la “cesta punta”. Pronto se haría famoso. Como a su hermano, lo describen como serio y buen hombre, que sabía mantener al público contento, y que recibía muchos aplausos por cada jugada. Era conocido por no jugar si no se encontraba bien, para no defraudar al público, por mucho que él perdiese dinero así.

Su posición de juego era el de zaguero, y su estilo rápido, con buenos reveses y rebotes que alaba la prensa de la época (Joshemari, *El Pelotari*, Núm. 110, Pag.2). Lo describen como uno de los pelotaris más completos de la época, con un juego muy entretenido, luchador hasta el final, y con absoluto control sobre la pelota.

Sobre su carrera profesional, sabemos que comenzó a jugar en Deusto una vez dejado Ermua, y que pronto daría el salto a “El Trinquete de San Francisco”, en Madrid. A partir de ahí, en pocos años conocería los mejores pelotalekus de España y América, teniendo mucho éxito en la mayoría. Terminaría sus días de jugador en “El Frontón Central” de Madrid, con mucho éxito, como figura principal del frontón.